

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2106

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez argitaratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan 30 urtetik gorako luzaroko langabeak kontratatzeke 2021eko laguntzen deialdia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 23ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, 30 urtetik gorako luzaroko langabeak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeke 2021eko laguntzen deialdia onartu zuen. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua p) apartatua xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Luzaroan langabezian egon diren 30 urtetik gorako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeke 2021. urteko laguntzen deialdia argitara ematea. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen, 2021eko martxoaren 23ko bilkuran, eta ebazpen honi erantsi zaio.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Ebazpenaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 24a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

EAE-KO LANTOKIETAN 30 URTETIK GORAKO LUZAROKO LANGABEAK
KONTRATATZEKO LAGUNTZEN 2021. URTERAKO DEIALDIA

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiak nabarmen aldatu du bai egungo egoera ekonomikoa, bai mundu-mailan etorkizunera begira dauden ikuspegi ekonomikoak ere. Birusaren hedapenari aurre egiteko hartu diren neurriek eragin oso handia izan dute osasun-mailan ez ezik, gizartean eta ekonomian ere.

EAEEn, nahiz eta langabezia-tasa azken urteetan beherantz zihoan, 2019ko hirugarren hiruhilekoan % 9,7koa izanik, 2020ko hirugarren hiruhilekoan % 10,6ra igo da (Eustaten datuak), COVID-ak sortutako krisiak enpleguan izan duen eraginaren ondorioz.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako 2020ko abenduko langabezia-datuen arabera, langabetuen % 52,5 luzaroko langabezian daude. Luzaroko langabezian dagoen pertsona-kopuruak gora egiten du adin-tartea igo hala. Hori horrela, 30 urtetik beherako pertsonak kolektibo honetako % 11,4 dira, 30 eta 44 urte bitarteko pertsonak % 28,0, eta 45 urtetik gorakoak kolektibo honetako % 60,7. Generoaren araberrako aldeak ere nabarmenak dira: luzaroko langabetuen % 59,4 emakumeak dira eta gizonak, berriz, % 40,6. Alde hori adin-tarte guztietan ageri da, baina nabarmenagoa da 45 urtetik beherako pertsonen artean, 45 urtetik gorako pertsonen artean baino.

Testuinguru horretan, jarduera ekonomikoaren susperraldia eta enpleguaren sorrera dira Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiekin batera eta gizarte-eragileekin lankidetzan, Berpiztu 2020-2024 Programan islatu dituen lehentasun estrategikoko eta konpromisoko bi ardatzak. Halaber, badago hirugarren ardatz edo zeharkako arlo bat ere, enpleguaren kalitatea hobetzeari eta genero-berdintasuna sustatzeari lotuta.

Berpiztu Programak, EAEk dauzkan indarguneen azterketan oinarrituta (eszenatoki berri batean sustatu beharreko trantsizioak indargune horien arabera bideratzeko eta finkatzeko), nahitaez jorratu beharreko hainbat hobekuntza-arlo zehazten ditu, besteak beste enplegu-tasa, batez ere emakumeen enpleguarena, eta langabezia-tasa, batez ere gazteen langabeziarena eta luzaroko langabeziarena.

Hala, Europar Batasuneko Kontseiluak luzaroko langabeak lan-merkatuan integratzeari buruz emandako Gomendioan (2016/C 67/01) adierazten da luzaroko langabeziak Europar Batasuneko ekonomien hazkunde-ahalmena murrizten duela, eta gizarte-esklusioa eta desberdintasuna izateko arriskuak areagotzen dituela.

Esparru-programa horren arabera, luzaroko langabetuentzako aukera zehatzak sustatze aldera, eta enplegurako eskumenak hobetzeko beste jarduera-ildo batzuekin lotuta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, 3/2011 Legearen bidez dagozkion eginkizunak betez, luzaroko langabezian dauden pertsonak kontratatze laguntza-programa sustatzen du, EAEko enpresek pertsona horiek kontrata ditzaten.

Iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden 30 urtetik gorako pertsonak EAEko lantokietan kontratatze laguntzak aurreikusita daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2021eko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Plan hori erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2020ko abenduaren 15eko bileran hartutako erabakiaren bidez, eta, horrenbestez, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua arabera,

Lanbideren webgunean argitaratua (www.lanbide.euskadi.eus), «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 23an egindako batzarrean, 30 urtetik goragoko pertsonak kontratatzeko laguntzen 2021eko deialdia onartu zuen.

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen helburua da 30 urtetik gorako luzaroko langabeak kontratatzeko laguntzen oinarriak ezartzea eta laguntza horiek arautzea, pertsona horiei EAEko lan-merkatuan laneratzeko laguntzeko.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa.

1.– Deialdi honetan araututako dirulaguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.410.000 eurokoak dira. Horietatik 705.000 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren 2021eko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak dira, eta 705.000 euro, berriz, 2022ko konpromiso-kreditukoak.

2.– Deialdi honen arabera diruz lagundutako lan-kontratuak Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatu ahal izango dira, EAEko 2014-2020ko EGF Programa Operatiboaren esparruan, baita zehazki REACT-UE ardatzaren barruan ere, Europar Batasunak COVID-19 pandemiari eman behar dion erantzunaren baitan, nahiz EAEko 2021-2027ko EGF Plus Programa Operatiboaren esparruan.

3.– Emango diren laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatutako kopurua edo hura handitzetik ateratzen dena, indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira (eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen); eta, hala bada, hori guztia argitara eman beharko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honen babespean diruz lagundu ahal izango dira 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonekin egindako kontratu mugagabeak, 12 hilabeteko edo hortik gorako iraupeneko aldi baterako kontratuak, eta 6 hilabeteko edo hortik gorako iraupeneko aldi baterako kontratuak, baldin eta haien xedea bada Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lantokietan lanpostuak betetzea.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak aplikatuko zaizkie 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sinatu edo hasi diren lan-kontratuak, baldin eta bertan ezarritako betekizun eta baldintzak betetzen badituzte.

Diruz lagundutako gehieneko aldiak honako hauek izango dira: 6 hilabete, kontratua 6 hilabete-koa edo hortik gorakoa baina urtebetetik beherakoa bada; eta 12 hilabete, kontratua urtebetekoa edo hortik gorakoa bada, mugagabea edo aldi baterakoa izan, eta kontratuaren guztizko iraupena dena delakoa izanda ere. Diruz lagundutako aldia 2022ko urriaren 31n amaituko da edozein kasutan.

2.– Deialdi honen esparruan diruz lagundu daitezkeen kontratuak lan-arloko legeriarekin bat datorren edozein kontratu-modalitate erabilia formalizatu ahal izango dira, honako hauek izan ezik: prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak; aldizkako lan-kontratu finkoak, eta aldi baterako laneko enpresekin langileak enpresa erabiltzaile bati lagatzeko egindako kontratuak. Kontratuak, aldi baterakoak edo mugagabeak izan, deialdian xedatutako gutxieneko iraupenaren baldintza bete beharko dute, bai eta beste baldintza hauek ere:

a) Kontratuko lanpostuek kontratatutako pertsonen ikasketa-mailetarako egokiak izan beharko dute.

b) Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eredu ofiziala erabilia, eta berariaz jaso beharko dituzte honako hauek: langilearen prestakuntza edo kualifikazio profesionala; kontratuaren hasiera-data eta, hala badagokio, amaiera-data; kontratuaren iraupena; lanaldia; eta bete beharreko lanpostua.

c) Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira; azken kasu horretan, inoiz ez dira izango ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.

d) Ordainsariei dagokienez, urteko soldata gordina adierazi beharko da urtebeteko edo hortik gorako iraupeneko kontratuetan, edo hileko ordainsaria, sei hilabeteko edo hortik gorako baina urtebetetik beherako iraupeneko kontratuetan.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, urteko ordainsari gordina ez da, ezein kasutan, taula honetan azaltzen diren zenbatekoak baino txikiagoa izango:

Titulazio akademikoa eta egindako ikasketak	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko pagak barne)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diploma, ingeniari-tza tekniko-a, arkitektura tekniko-a edo unibertsitate-gradua (Bologna plana)	28.300 euro.
Goi-mailako heziketa-zikloak (LHII)	24.300 euro.
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), batxilergoa, oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	18.700 euro.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez.	14.000 euro.

3.– Halaber, diruz lagundutako kontratazioek enplegu-sorrera eragin beharko dute, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen lantokietako batez besteko langile-kopuruarekin alderatuta. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horren ondorioz, enpresako langileen batez bestekoak gora egin beharko du.

Baldintza hori betetzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko kontratuak arrazoi hauengatik amaitutako kontratuak: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, eta langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.

4.– Ez dira diruz lagunduko:

a) Enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duen inoren ezkontideari, ondorengoei eta gainerako senideei (odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino) egindako kontratuak, edo enpresetako administrazio-organotako kideekin edo zuzendaritza-karguak dituztenekin halako ahaidetasuna dutenei egindako kontratuak, haien forma juridikoa edozein dela ere.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz lagundu daitezkeen jardueren lotuta formalizatu daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan diruz lagunduak izan direnak.

c) Etxeko zerbitzuko araubidean egindako kontratuak.

d) Enpresa berarekin lan-harreman mugagabea amaitu duten pertsonen kontratazioa.

e) Enpresa kontratatzailearekin aurretik iraupen mugatuko edo aldi baterako lan-harremana izan duten pertsonen kontratazioa, lan-harreman hori dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan izan bada.

4. artikulua.– Enpresa onuradunak.

Deialdi honetan ezarritako laguntzak jaso ahal izango dituzte bertan ezarritako baldintzetan lan-kontratuak egiten dituzten enpresek edo erakundeek (haien forma juridikoa edozein dela ere), honako hauek izan ezik: administrazio publikoek eta erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek. Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Egoitza soziala edo fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.

b) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) deialdi honen babesean kontratatzeko asmoaren berri eman izana, kontratu-mota, kontratazio-aldia eta bete beharreko postua adierazita. Enpresak eskabidean berariaz adierazi beharko du LLO baduen ala ez.

c) Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharreko egunean egotea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla, bai dirulaguntza emateko garaian, bai ordainketak egiteko unean, hala xedatzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) 50.3 artikuluan, bai eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra garatzeko Erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zenak) 22.4 artikuluan ere.

Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

d) Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa guztiak eginak izatea.

e) Dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zehapenik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, barnean hartuta sexu-diskriminazioarekin loturikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

f) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikulua ezarritako gainerako ezein egoeratan ez egotea.

5. artikulua.– Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonak bete beharreko baldintzak.

30 urte edo gehiago dituzten pertsonak kontratatzeko da deialdia hau, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.

b) Langabeak izan eta izena emanda egotea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa, bai kontratuaren hasiera-datan, bai aurreko 540 egunetan 360 egunez gutxienez.

c) Eskainitako lanpostua betetzeko profil profesional egokia edukitzea.

6. artikulua.– Kontratatutako pertsonen hautaketa.

1.– Kontratatuko diren pertsonak honako prozedura hauetako baten bidez hautatuko dira:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez.

Hautaketa-mota horretarako, eskaintza kudeatzeko eskabide bat aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostu-profil bakoitzeko. Eskabide hori horretarako xedatutako inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, eta, bertan, gutxienez datu hauek adierazi beharko dira: izen-abi-zenak edo enpresaren izen soziala, IFZ, enplegatzailearen kotizazio-kontuaren kodea (halakorik bada), lantokiaren udalerrria, lanpostuaren izena eta langintza, lanpostuen kopurua, lanpostuaren deskribapena eta enpresaburuaren, legezko ordezkariaren edo baimena duen pertsonaren sinadura.

Eskaintza kudeatzeko eskabide bakoitza hura jasotzen duen bulegoak edo erakunde kolaboratzaileak erregistratuko du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geratuko da. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia.

Eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako prozeduren arabera kudeatuko dira. Enpresara bidaliko dira Lanbiden luzaroko langabezia-egoeran inskribatuta dauden hautagaiak, eskatutako profil profesionala eta baldintzak betetzen dituztenak, egingo zaien kontratua deialdi honen babesean diruz lagundu ahal izateko.

Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

b) Enpresak zuzenean hautatzea, Lanbideri enplegu-eskaintza kudeatzeko eskabiderik egin gabe.

Kasu horretan, 8. artikuluan xedatutakoa betetzeko, kontratatuko den pertsonak, kontratazioaren aurretik, luzaroko langabezia-egoeran dagoela egiaztatzen duen txostena eskatu beharko dio Lanbideri, eta txosten hori enpresa kontratatzaileari eman beharko dio, dirulaguntzarako eskabi-dearekin eta eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera aurkez dezan.

2.– Egiten den hautaketa-prozesua dena delakoa izanda ere, kontratatuko diren pertsonak beren enplegu-eskaera alta-egoeran eduki behar dute kontratuaren hasiera-data arte.

7. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Kontratu bakoitzeko diruz lagundutako zenbatekoa titulazio akademikoaren edo egindako ikasketen ikasketen eta kontratuaren iraupenaren arabera zehaztuko da, taula honekin bat etorriz:

Titulazio akademikoa edo egindako ikasketak	Dirulaguntzaren zenbatekoa		
	≥ 6 < 12 hilabeteko kontratua (euro)	≥ 12 hilabeteko kontratua (euro)	Kontratu mugagabea (euro)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana), unibertsitate-diploma, ingeniari-tza tekniko-a, arkitektura tekniko-a edo unibertsitate-gradua (Bologna plana)	4.250	11.320	14.150
Goi-mailako heziketa-zikloak (LHII)	3.670	9.720	12.150
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), batxilergo-a, oinarri-zko lanbide-heziketa eta profesional-tasun-ziurtagiri-ak	2.800	7.480	9.350
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez. j	2.100	5.600	7.000

2.– Aipatutako dirulaguntzen zenbateko guztiak % 15 handituko dira, kontratatutako pertsonak ezaugarri hauetako bat gutxienez badu: 45 urte edo gehiago izatea edo emakumea izatea.

3.– Halaber, aurreikusitako dirulaguntzen zenbatekoak % 10 handituko dira, kontratatutako pertsonak kontratatze konpromisoa dakarren prestakuntza-ekintzaren bat amaitu badu 2020. edo 2021. urtean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutakoa, maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak (Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duenak) ezarritakoaren baitan, eta formalizatzen den kontratua mugagabea bada edo gutxienez 12 hilabeteko iraupena badu, eta lanaldia, gutxienez, ezarritako lanaldiaren % 70 bada.

4.– Kontratatutako pertsonak aurreko 2. eta 3. apartatuetan adierazitako baldintzak betetzen baditu, dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 handituko da.

Taula hauetan ageri dira dirulaguntzen zenbatekoak, bai eta dirulaguntza gehigarrien ehunekoak ere:

Titulazio akademikoa edo egindako ikasketak	Dirulaguntzaren zenbatekoa (% 15 gehiago, kontratatutako pertsonak ezaugarri hauetako bat gutxienez badu: emakumea izatea edo 45 urte edo gehiago izatea; 7.2 artikulua)		
	≥ 6 < 12 hilabeteko kontratua (euro)	≥ 12 hilabeteko kontratua (euro)	Kontratu mugagabea (euro)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana), unibertsitate-diploma, ingeniari-tza tekniko-a, arkitektura tekniko-a edo unibertsitate-gradua (Bologna plana)	4.885	13.015	16.270
Goi-mailako heziketa-zikloak (LHII)	4.220	11.175	13.975
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), batxilergoa, oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.220	8.600	10.755
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez. j	2.415	6.440	8.050

Titulazio akademikoa edo egindako ikasketak	Dirulaguntzaren zenbatekoa (% 10 handituko da, kontratatutako pertsonak 2020an edo 2021ean kontratatze konpromisoa dakarren ikastaro bat amaitu badu eta kontratuak 7.3 artikuluko baldintzak betetzen baditu).	
	≥ 12 hilabeteko kontratua (euro)	Kontratu mugagabea (euro)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana), unibertsitate-diploma, ingeniari-tza tekniko-a, arkitektura tekniko-a edo unibertsitate-gradua (Bologna plana)	12.450	15.565
Goi-mailako heziketa-zikloak (LHII)	10.690	13.365
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), batxilergoa, oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	8.230	10.285
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez. j	6.160	7.700

Titulazio akademikoa edo egindako ikasketak	Dirulaguntzaren zenbatekoa (% 20 gehiago, kontratatutako pertsonak deialdiaren 7.2. eta 7.3. apartatuetan xedatutako baldintzak betetzen baditu).	
	≥ 12 hilabeteko kontratua (euro)	Kontratu mugagabea (euro)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana), unibertsitate-diploma, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura teknikoa edo unibertsitate-gradua (Bologna plana)	13.585	16.980
Goi-mailako heziketa-zikloak (LHII)	11.665	14.580
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), batxilergoa, oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	8.975	11.220
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikasketarik ez. j	6.720	8.400

5.– Aipatutako dirulaguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Denbora partzialeko kontratuetan, zenbatekoak lanaldiaren arabera doituko dira.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua, epeak, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Luzaroko langabezian dauden 30 urtetik gorako pertsonak kontratatuzeko dirulaguntzaren eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, <https://www.euskadi.eus/servicios/1092803> helbidearen bidez. Bertan, eskabideak elektronikoki izapidetzeko zehaztasunak nahiz bete beharreko inprimakiak egongo dira eskuragarri. Era berean, webgune horretara sartzeko, esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian bertan: <https://www.lanbide.euskadi.eus>

Eranskinean eskabide-inprimakiaren eredu bat dago.

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak eta jakinarazpenak «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa. Bertara sartzeko, hona hemen lotura: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Eskabidea ordezkari baten bidez aurkezten bada, ordezkari-tza hori Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatuta egon ahal izango da. Hona hemen Erregistroa sartzeko lotura: <https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

2.– Luzaroko langabezian dauden pertsonak kontratatuzeko dirulaguntzetarako eskabidearen inprimakiarekin batera, enpresek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea pertsona juridiko eskatzailearen izenean sinatzen duenaren legezko ordezkari-tza egiaztatuzeko agiria, baldin eta inskribatuta ez badago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistroan.

b) Enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia. Dirulaguntza kudeatzen duen organoak automatikoki egiaztatuko ditu enpresaren identifikazio fiskalari buruzko datuak, salbu eta eskatzaileak berariaz aurka egiten badio; kasu horretan, eskatzaileak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

c) Egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia.

d) Eskabidea langile autonomo batek egiten badu, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatuzeko dokumentazioa.

e) Bi txosten «Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» izenekoak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoak (RED sistemaren bidez eskuratuak), enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko sei hilabeteko aldiari dagokiona, eta bestea, kontratazioaren alta egunari dagokiona.

Bi txosten horiek alderatuta, ikusten bada plantilla ez dela handitu, 3.3 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, aurreko sei hilabeteetan kontraturen bat amaitu dela egiaztatzeke dokumentazioa aurkeztu beharko dute, kontratuak amaitzeko arrazoiak hauek izan daitezkeelarik: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, eta langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.

3.– Diruz laguntzeko eskatzen den kontratazioa Lanbideri enplegu-eskaintza egiteko eskatu gabe egin bada, aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Lanbidek igorritako txosten bat ere aurkeztu beharko da, indarrean dagoena, pertsona hori kontratazioa egin aurretik luzaroko langabezia-egoeran zegoela egiaztatzeke, deialdiaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Txosten hori diruz laguntzeko eskatu den kontratazioaren xede den pertsonak aurretik eskatu beharko dio Lanbideri.

4.– Eskabideak betetzen ez baditu oinarri hauetan eskatzen diren betekizunak, edo osatu gabe badago edo akatsak baditu, interesdunari hamar eguneko epean okerra konpon dezan edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio; eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta, horretarako, aurretiaz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ebazpena emango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

5.– Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021eko urriaren 29an amaituko da.

9. artikulua.– Ebazpena emateko organo eskuduna, emate-prozedurak eta ebazpena.

1.– Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak du prozedura izapidetzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, berriz, ebaztekoa.

2.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie dirulaguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte, hala badagokio. Kreditua handitzen ez bada, aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAAAn argitaratuko da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren esanbidezke ebazpen bidez onartu edo ukatuko dira.

Luzaroko langabeak kontratatzeagatik jaso daitezkeen dirulaguntzak emateko ebazpenean datu hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordainketa-modua eta dirulaguntzaren justifikazioa.

Ebazpenean, berariaz aipatuko da EAEko 2014-2020ko EGF Programa Operatiboaren Europako Gizarte Funtsaren kofinantzaketa duela, eta emandako dirulaguntzak «minimis» izaera duela, baita zehazki REACT-UE ardatzaren barruan ere, Europar Batasunak COVID-19 pandemiari eman behar dion erantzunaren baitan, nahiz EAEko 2021-2027ko EGF Plus Programa Operatiboaren esparruan.

Eskabidea ezesten duen ebazpena arrazoitu egin beharko da, hura ezesteko arrazoia(k) berriaz adierazita.

4.– Ebazpenak eman eta jakinarazteko, gehienez sei hilabeteko epea egongo da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita; epe hori amaitutakoan, dirulaguntzaren eskabidea ezeztat hartuko da, baldin eta ebazpen espresurik eman ez bada.

5.– Onuradunei dirulaguntzak onartzeko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

7.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta dirulaguntza emateko ebazpena espresuki eta banaka jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, arau honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren enpresen zerrenda, eta zer zenbateko jasoko dituzten ere adieraziko da. Halaber, erakunde bati emandako dirulaguntza aldatzea erabaki bada, hori ere adieraziko da.

10. artikulua.– Kontratua azkentzea.

1.– Kontratuan xedatutako probaldia ez gainditzeagatik, borondatezko lan-uzteagatik, bidezko kaleratzeagatik, edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasunagatik, kontratua azkentzen bada diruz lagundu daitekeen gehieneko aldiaren barruan –aldi baterako kontratueterako, 3.1 artikuluan xedatutakoa, eta kontratu mugagabeetarako, 15 hilabete–, enpresak horren berri eman beharko dio Lanbideri, idatziz.

Komunikazio hori kontratua azkendu eta hilabeteko gehieneko epean egin beharko da, kontrataziorako dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa kontratatutako pertsonak lan egindako aldiaren zati proportzionalera egokitzeko.

Doikuntza proportzional hori egiteko, artikuluko 1. apartatuan xedatutako aldia eta kontratuaren amaiera-data hartuko dira kontuan.

2.– Artikulu honen 1. apartatuan xedatutako aldiaren lan-harremana azkentzen bada, hor aurreikusi ez den beste kausaren batengatik, kontrataziorako emandako dirulaguntza oso-osorik itzuli beharko da, deialdi honen 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3.– Enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi izanez gero, nahitaez eskatu beharko du berriro dirulaguntza, deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera, adierazitako epeen barruan baldin badago.

11. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntzak honela ordainduko zaizkie enpresa kontratatzaileei:

a) Emandako dirulaguntzaren % 50 ordainduko da lehen ordainketan, dirulaguntza ematea onartzeko unean, 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren ordainketa-kredituaren kontura.

Ordainketa egin baino lehen, Lanbidek egiaztatuko du langilea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda dagoela, eta enpresako plantilla handitu egin dela.

b) Bigarren ordainketan gainerako % 50a edo kasuan kasu dagokiona ordainduko da, 2022ko ekitaldiko konpromiso-kredituaren kontura, diruz laguntzekoak diren jarduketak justifikatu ondoren, 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistro banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduari jarraituz: http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datu-aldaketa/web01-tramite/eu/>. Inprimaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoa ere egongo da eskuragarri.

12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Kontratuak justifikatzeko, enpresa onuradunak kontratatu dituen pertsona langabeen eta haien kontratuen iraupenen zerrenda aurkeztu beharko du.

Baldin eta enpresa kontratatzaileak 52 urtetik gorako langabeak kontratatzeagatik onurak aplikatzen baditu (onura horiek Langabeziatik babesteko sistema erreformatzeko eta lan-aukerak areagotzeko premiazko neurri buruzko abenduaren 12ko 45/2002 Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 4. apartatua daude ezarrita), erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kontratuak irauten duen hilabeteetan kontratua ezarritako soldatan onura hori aplikatu izanari buruz.

2.– Hori aurkezteko epea hau izango da:

a) Aldi baterako kontratuen kasuan, hilabete bat, 3.1 artikuluan aipatzen den diruz laguntzeko gehieneko aldia amaitzen denetik.

b) Lan-kontratu mugagabeen kasuan, urtebete, kontratua hasten denetik.

Kasu batean zein bestean, zerrenda aurkezteko azken eguna 2022ko azaroaren 30a izango da, egun hori barne dela.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du aldi baterako kontratuen benetako iraunaldia, bai eta kontratu mugagabeak gutxienez 12 hilabete iraun dutela ere, horren ostean bigarren ordainketa egiteko. Halaber, deialdiaren 13. artikuluan adierazitakoa betetzen dela egiaztatuko du.

3.– Azkenean, enpresari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik –deialdiaren 10.1 artikuluan jasotzen dira arrazoi horiek– kontratuaren iraupena xedatutakoa baino laburragoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa ere gutxitu egingo da, proportzioan.

13. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunen betebeharrak izango dira Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan ezarritakoak, bai eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) 50.2 artikuluan jasotakoak ere, eta, bereziki, honako hauek:

a) Hasieran hitzartutako iraupena baino lehenago azkentzen diren kontratuen berri ematea, eta arrazoia jakinaraztea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatu beharko da bete direla dirulaguntza emateko edo jasotzeko eskakizunak eta baldintzak.

c) Honako hauen egiaztatze-jarduketegi baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-istantziak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuek Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, erakunde onuraduneari gastuaren kontabilitate-erregistro bat eraman behar da, aparteko kontabilitate-identifikazio batekin, edo kontabilitate-kode egoki batekin.

d) Helburu berberarekin administrazio honen bidez edo beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik dirulaguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan izan den edozein baldintzaren aldaketa, baita diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmenki eragiten dion edozein gorabehera ere.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

g) Beren-beregi jasotzea edo adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtsek elkarrekin finantzatu dituztela –EAEko 2014-2020ko Programa Operatiboaren esparruan, baita zehazki REACT-UE ardatzaren barruan ere, Europar Batasunak COVID-19 pandemiari eman behar dion erantzunaren baitan, nahiz EAEko 2021-2027ko EGF Plus Programa Operatiboaren esparruan– deialdi honen babesean diruz lagundutako jardueren komunikaziorako, hedapenerako edo argitalpenerako material eta ekintza guztiak.

Enpresa onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115. artikuluen 2. apartatuan adierazitako zerrenda publikoan jasoko da.

h) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak:

– Probetan edo elkarrizketetan eta lanpostuetarako hautaketak egitean tratu- eta aukera-berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatu behar da.

– Dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rolen eta genero-identitatearen pluraltasuna sustatzen dutenak.

i) Erakunde onuradunek kontratatutako langileei helaraztea 18. artikuluan aipatzen den datu pertsonalen babesari buruzko informazioa.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Lan eta Enplegu Sailak, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako funtsen kontrol-ins-

tantziek beharrezkoak diren ikuskaritza- eta kontrol-jarduerak egingo dituzte, deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko, eta bereziki egiaztatuko dute betetzen direla enplegua benetako sorrera eta kontratuen iraupena ezartzen dituzten baldintzak.

Horretarako, diruz lagundutako kontratazioei buruzko dokumentazio guztia gorde eta zaindu beharko du enpresak, gutxienez 2028ra arte, deialdi honen ondoriozko konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko.

15. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatu den aldaketa orok ekarri ahal izango du emandako dirulaguntza aldatzea, deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxienezko eskakizunak betetzen badira, betiere. Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

16. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira kontzeptu eta helburu berberetarako administrazio honek edo beste administrazio edo erakunde pribatu edo publiko batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta diru-sarrerekin, ez ordea legez ezarritako Gizarte Segurantzari egingandako kotizazioetako hobariekin edo murrizketekin.

Era berean, bateragarriak dira abenduaren 12ko 45/2002 Legeak (langabeziagatik babesezko lan-aukerak areagotzeko sistemaren erreformarako premiazko neurriei buruzkoak) bosgarren xedapen iragankorreko 4. apartatuan enpresentzat ezartzen dituen 52 urtetik gorako pertsona langabetuak kontratatzeagatik onurekin.

17. artikulua.– Ez-betetzeak eta emandako dirulaguntzak itzultzea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, dagokion ebazpena emanda, adieraziko du deialdi honetako onuradunek jasotako zenbatekoak eta legezko interesak –laguntzak ordaintzen direnetik aurrerakoak– itzuli beharko dituztela, baldin eta honako xedapen hauetan oro har aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badituzte: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua. Zenbatekoak eta interesak itzuli beharko dituzte, orobat, deialdi honetan ezarritako betebeharrak espezifikoak betetzen ez badituzte edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan dirulaguntzak itzultzeko ezarritako kasuetako batean sartzen badira. Itzuli beharrezkoak itzultzeko, xedapen horretan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraituko diote (698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharrezko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezarri ziren). Aipatutako kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

2.– Diruz lagundutako kontratuak 10.1 artikuluan ezarritako aldia baino lehenago azkentzen badira, artikuluan horretan aurreikusi ez den beste arrazoiren batengatik, emandako dirulaguntza osorik itzuli beharko da, eta dagokion prozedura izapidetuko da.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzulketa-prozedura, eta idazkia bidaliko dio pertsona onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaera edo gertaerak jakinarazteko. Hori ez ezik, egokitutako jotako alegazioak edo egiaztapenak aurkezteko

hamabost eguneko epea duela adieraziko dio. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

4.– Alegazioak aurkezteko epea igaro eta halakorik aurkeztu ez bada, edo aurkeztutako alegazioak onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

5.– Ebazpenak arauen bat bete gabe utzi dela iritziz gero, eta dirulaguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesdunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko gehieneko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epea izango da.

6.– Borondatezko epean dirulaguntza itzultzen ez bada, hura berreskuratzeko premiamendu-bidera jotzeko izapideak hasiko dira.

18. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortutako datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide da, eta haren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra pertsegitzea eta datuak estatistiketarako erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago hemen: <http://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>

19. artikulua.– Eskumenari buruzko Europako araudia.

1.– Deialdi honetan luzaroko langabeak kontratatzeagatik emateko laguntzek bete egin beharko dute Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako «minimis» araua (Erregelamendua Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa da; DOUE L352, 2013ko abenduaren 24koa). Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari «minimis» laguntzetan emandako guztizko zenbatekoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa hiru ekitaldi fiskalen barruan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den «enpresa bakarra» Erregelamendu horren 2.2 artikuluan.

2.– Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitortpena egin beharko du laguntza eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

20. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Laguntzen programa honi dirulaguntzen arloko arau hauetan bildutako oinarrizko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua). Era berean, arau hauetan xedatutakoa ere aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina–, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (horretan arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezartzen dira horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak).

Dirulaguntzek, Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa dutenez, bete egin beharko dituzte Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1303/2013 Erregelamendua (EB), eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an emandako 1304/2013 Erregelamendua (EB), Europako Gizarte Funtsari buruzkoa eta Kontseilua-ren 1083/2006 Erregelamendua (EE) indargabetzekoa.

2021eko apirilaren 13a, astearta



30 URTETIK GORAKO LUZAROKO LANGABEAK EAE-KO LANTOKIETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

Administrazioak betetzeko

Prozeduraren kodea							
--------------------	--	--	--	--	--	--	--

1. ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZENA EDO SOZIJETATE-IZENA		IFZ
JARDUERA NAGUSIA	SEKTOREA	JESN
HELBIDEA		HERRIA
POSTA-KODEA	LURRALDE HISTORIKOA	
Ba al du langileen legezko ordezkariarik (LLO)?		
Bai	<input type="checkbox"/>	Ez <input type="checkbox"/>

2. ORDEZKARIAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
Inskribatuta al dago EAEko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan?		
Bai	<input type="checkbox"/>	Ez <input type="checkbox"/> (kasu honetan, ordezkari-tza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da)

3. HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN/AIZ
TELEFONO-ZENBAKIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

4. JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA			
Euskara	<input type="checkbox"/>	Gaztelania	<input type="checkbox"/>
JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOAK EGITEKO BIDEA			
Telefono mugikorra		Posta elektronikoa	

3

EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO





5. ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Zenbat kontratutarako eskatzen den laguntza	
ESKATUTAKO DIRU-ZENBATEKOA, GUZTIRA (EUROTAN)	

6. KONTRATAZIOA (orri hau bezalako bat eman behar da lanpostu eta kontratatutako pertsona bakoitzeko)

HAUTAKETAREN DATUAK		
1. MODALITATEA: ESKAINTZA BIDEZ HAUTATZEA (6.1.a artikulua)	ESKAINTZAREN ZK.	KONTRATUAREN IDENT.
2. MODALITATEA: ENPRESAK ZUZENEAN HAUTATZEA (6.1.b artikulua)	KONTRATUAREN IDENTIFIKAZIOA	

KONTRATATUTAKO PERTSONAREN DATUAK					
NAN/AIZ	Izena	1. abizena		2. abizena	
Jaioteguna	Adina	Sexua			
/ /		Emakumea	<input type="checkbox"/>	Gizonezkoa	<input type="checkbox"/>
45 urtetik gorakoak	BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	2020/2021ean, kontratatzeko konpromisoa dakarren prestakuntza-ekintza bat amaitu du?		BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	





LANPOSTUAREN DATUAK		
Lanpostuaren izena, kontratuaren arabera		
Langintzaren izena eta kodea (1): http://www.lanbide.euskadi.eus		KODEA
Lanposturako eskatutako titulazioa		
Kontratu-mota:		
Jardunaldia: OSOA edo PARTZIALA (gutxienez, % 70) (2)		
Kontratuaren hasiera-data		
Aurreikusitako amaiera-data (hala badagokio)		
Kontratuaren iraupena: HILABETETAN (mugagabea bada salbu)		
Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea (3):		
Lan egingo duen lantokiaren helbidea:		
Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuaren zenbakia:		
Kontratuaren kostua: urteko soldata gordina, pagak barnean hartuta, Gizarte Segurantza kostuak zenbatu gabe.		
Lanposturako eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa		
<p>(1) Gutxienez 4 digitu idatzi.</p> <p>(2) Jardunaldi partzialaren kasuan, adierazi ehunekoa eta orduen kopurua, kasuan kasu aplikagarri den hitzarmenean eta kontratuan adierazitakoaren arabera.</p> <p>(3) Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea bat etorriko da kontratatu nahi den pertsonari eskatutako titulazio-mailarekin eta langintzarekin.</p>		

7. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Markatu x batekin dagokiona

Lehenengoa:

- Erakunde eskatzaileak ez du zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zehapenik, eta ez dauka horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, edo emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

Bigarrena:

- Erakunde eskatzaileak ez dauka ordaindu gabeko itzulketa-betebeharririk dirulaguntzen arloan.

Hirugarrena:

- Erakunde eskatzailea ez dago Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.



**Laugarrena:**

- Erakunde eskatzaileak ez du hasita itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntza edo laguntzaren baten ondorioz.
- Erakunde eskatzailea dirulaguntza edo laguntza itzultzeko prozeduran edo zehapen-prozeduran sartuta dago (honako hau da dirulaguntzaren edo laguntzaren emaitza:).

Bosgarrena:

- Erakunde eskatzaileak ez da jasotzen ari helburu berbererako inolako laguntzarik beste administrazio publikoetatik.
- Erakunde eskatzaileari euroko dirulaguntza eman dio honek: (*).
- Erakundeak(a)ri (*) eskatu dio laguntza, eta ebazpenaren zain dago.
(*) Adierazi Administrazioaren edo erakunde publiko edo pribatuaren izena

Seigarrena:

- Erakunde eskatzaileak bermatu egingo du probetan edo elkarrizketetan eta lanpostuetarako hautaketak egitean tratu- eta aukera-berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen dela.

Zazpigarrena:

- Erakunde eskatzaileak EAEn du egoitza soziala eta fiskala edo lantokia.

Zortzigarrena:

- Erakunde eskatzaileak jakinarazi dio langileen legezko ordezkartzari (LLO) laguntza-deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa duela, bai eta zer lanpostu bete nahi den eta lan-harremanak zenbat iraungo duen ere.
- Erakunde eskatzaileak ez du gaur egun LLOrik, eta horregatik ez zaio eman deialdi honen baitan egin nahi dituen kontratazioen informaziorik.

Bederatzigarrena:

- Ez da dirulaguntzarik eskatu enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duen inoren ezkontideari, ondorengoei eta gainerako senideei (odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino) kontratuak egiteko, edo enpresetako administrazio-organotako kideekin edo zuzendaritza-karguak dituztenekin halako ahaidetasuna dutenei kontratuak egiteko, haien forma juridikoa edozein dela ere.
- Enpresa edo erakundeak ez du kontratatutako pertsonekin aurretik lan-harreman mugagabea izan, ezta iraupen mugatuko edo aldi baterako lan-harremana izan ere dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren aurreko 3 hilabetetan.

Hamargarrena:

«Minimis» arauak betetzen direla egiaztatze aldera, 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 Erregelamenduan (EB) – Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa– xedatutakoarekin bat etorriz, eta, zehazki, aipatutako erregelamenduen 2.2. artikuluan aurreikusitako “enpresa bakarra” definizioa eta deialdi honen 19. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta:

- Enpresa edo erakunde eskatzaileak ez du jaso «minimis» araubideko laguntzarik dagokion ekitaldi fiskalean, ez eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan ere.
- Enpresa edo erakunde eskatzaileak (dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan) «minimis» araubideko laguntza hauek jaso edo eskatu ditu.



2021eko apirilaren 13a, astearta



Eskatutako dirulaguntzen kopurua:

Laguntza-egoera (*)	Laguntza eman duen erakundea	Laguntza xedearren deskribapena	Zenbatekoa (euro)	Data (laguntza eskatu edo eman zenekoa)

(*) E = Laguntza eskatu da O = Laguntza ematea onartu da

Hamaikagarrena:

 Eskabide honetan adierazitako datuak egiazkoak dira.

8. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamendu-jarduera	Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak.
Arduraduna	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
Helburua	Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin eta prestakuntzarekin lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.
Legitimazioa	Tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatzea.
Datu-lagapenen hartzaileak	Arloan eskumena duten administrazio publikoak.
Eskubideak	Zeure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea duzu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haien aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen diren baldintzetan.
Informazio gehigarria	Gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: (https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml)
Hori guztia, betiere, honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: <ul style="list-style-type: none"> Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf) Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf) 	

7

EUROPAR BATASUNA
UNION EUROPEA
EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO





9. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Enpresak zuzenean hautatzen badu kontratatuko duen pertsona, Lanbiden eskaintza egin gabe, honakoa aurkeztea: **Lanbidek igorritako txostena, kontratazioa baino lehen, kontratatuko den pertsona luzaroan langabezian egon dela egiaztatzen duena.** Kontratatuko den pertsonak eskatuko du txostena, lan-harremana hasi baino lehen eta kontratua hasi aurreko eguneko erreferentzia-data jasota, bitarteko telematikoen bidez, Milanbidenet-en bitartez edo enplegu-bulegoan bertan. Ondoren, pertsona horrek enpresari emango dio, azken horrek eskabidearekin batera erants dezan.
- Erakunde eskatzailearen IFZ agiriaren kopia.
- Eskabidea langile autonomo batek egiten badu, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan emanda dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Erakundeak eskabidea egiten duen pertsonari emandako ordezkaritza egiaztatzen duen agiria, baldin eta inskribatuta ez badago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoan.
- Kontratuaren fotokopia osoa, non adierazi behar baita urteko soldata gordina, kontratu mugagabeetan eta urtebeteko edo hortik gorako iraupeneko kontratuetan, edo hileko ordainsaria, sei hilabeteko edo hortik gorako baina urtebetetik beherako iraupeneko kontratuetan.
- «Alta-egoeran dauden langileen plantillaren batez bestekoaren txostena» izeneko bi txosten, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoak (RED sistemaren bidez eskuratuak), enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta emandako egunaren aurreko sei hilabetei dagokiona, eta bestea, kontratazioaren altaren egunari dagokiona.

Adibidea: 2021eko otsailaren 2an egindako kontratu batean, aurreko 6 hilabeteko aldia 2020ko abuztuaren 2tik 2021eko otsailaren 1era arte izango da, eta kontratazioaren eguna 2021eko otsailaren 2tik 2021eko otsailaren 2ra.

- Kontratazioaren datan plantilla handitzen ez bada, «baja-aitortzari buruzko ebazpena» agiria; hain zuzen ere, kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetan enpresan deialdiaren 3.3. artikuluko bigarren paragrafoan jasotako arrazoiengatik baja eman duten langileena. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eman behar du agiri hori.

10. INFORMAZIO GEHIGARRIA

1.- Agiriak ez aurkezteko eskubidea.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta salbu eta zu berariaz aurka agertzen bazara, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, ondoren adierazten diren agiriak eskatuko dituela bitarteko elektronikoz. Berariaz adierazten baduzu ez duzula nahi Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aipatu agiriren bat eskuratzetik, halaxe adierazi behako duzu jarraian agertzen den laukitxoan, eta, beraz, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzu:



Datuen
tratamenduari
aurka egiteko
eskubidea

- Zerga-betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituzula egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Enpresaren identifikazio fiskaleko txartela

2.- Datu pertsonalak egiaztatzea.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik, jakinarazten dizugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere eskumenak baliatuz diharduela, beharrezko diren egiaztapenak egingo dituela eskabide honetan adierazitako eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko.

3.- Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan.

Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, pertsona edo erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Erregistratuta ez badago, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimaki bat bete beharko du, hemen adierazitako ereduari jarraituz:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu>

Eskabidearen sinadura elektronikoa:

